

## **2025EKO MAIATZAREN 19KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko maiatzaren hemeretzian, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaraturako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

### **I.- AURREKO AKTAK.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaraturakoen onespenera aurkeztu dira 2025eko apirilaren 14ean eta maiatzaren 5ean egindako ohiko bilkuretako aktak, eta idatzita dauden moduan onartu dira.

### **II.- FAKTURAK.-**

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2025eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 41 zenbakidun zerrenda, EHUN ETA HIRUROGEITA SEI MILA EHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI euro ETA LAUROGEITA HAMALAU zentimokoa (166.199,94 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

### **III.- 2023KO ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAN ALOKAIRUARENGATIKO HOBARRIA.-**

Tokiko Gobernu Batzardeak 2024ko irailaren 2an egin zuen bilkuran, 2023ko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan %50eko hobaria aplikatzea onartu zuen etxebizitza alokatuta duten eta horretarako baldintza guztiak betetzen dituzten pertsonen, horretarako irekitako epean dagokion eskaera egin ondoren.

Gaurko batzordean aurkeztu den proposamenean, beste lagun bati EHUN ETA BIDERATZI euro eta BERROGEITA ZORTZI zentimo (109,48 €) hobaritzea proposatu da, bere espedientean jasotako zenbatekoaren arabera.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, hobari hau onartzea erabaki du.

Hobari hau sarreren aurrekontuko 2 112.02.000.00 partida gutxituz egingo da.

#### IV.- ZUBIZKITZA AUZOKO 3. FASEA BERRURBANIZATZEKO LANEN 3. OBRA EGIAZTAGIRIA (LIKIDAZIOA).-

Zubizkitza auzoko 3. fasea berrurbanizatzeko lanen obra zuzendaritza daramaten Pedro Izaskun arkitektoak, Soroa Arquitectos, S.L.P. enpresakoak, eta Estibalitz Igartua arkitekto teknikoak, lanen hirugarren obra egiaztagiria (likidazioa) egin dute. Hirugarren obra egiaztagiri honen zenbatekoa EHUN ETA BERROGEITA HAMABOST MILA ETA SEI euro ETA BEDERATZI zentimokoa (155.006,09 €) gehi B.E.Z.ari dagokion HOGEITA HAMABI MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA HAMAIIKA euro ETA HOGEITA ZORTZI zentimokoa (32.551,28 €) da, guztira EHUN ETA LAUROGEITA ZAZPI MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA HAMAZAZPI euro ETA HOGEITA HAMAZAZPI zentimokoa (187.557,37 €).

Lanak SASOI ERAIKUNTZAK S.L. enpresa ari da burutzen.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) adierazi du abstenitu egingo direla.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aldeko 3 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 2 abstentzior (EH Bildu), hirugarren obra egiaztagiri hau (likidazioa) onartu egin du.

#### V.- GIPUZKOAKO EROSKETA ZENTRALAREN BITARTEZ, GAS NATURALAREN HORNIDURA KONTRATUAREN 2. LUZAPENA (2022).-

Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko ekainaren 20an hartutako akordio bidez, Udal honek "Foru Kontratazio Zentralaren bitartez gas naturalaren hornidura kontratatzekeo esparru akordiotik" eratorritako kontratua (X22006) EDP CLIENTES, S.A. enpresari (IFZ.: A74472911) esleitzea erabaki zuen, esparru akordioa burutzea erabaki zen baldintzetan.

Aipatu kontratua bi urterako izenpetu zen, gehienez urtebeteko bi luzapen egiteko aukerarekin.

2024ko ekainaren 17an, Tokiko Gobernu Batzordeak kontratuaren urtebeteko lehen luzapena egitea onartu zuen.

Aurreikusitako mugaeguna iristear dela kontuan izanda, Gobernantza Departamentuak, 2025eko maiatzaren 12ko foru agindu bidez, urtebeteko bigarren luzapena baimentzea erabaki du.

Honen aurrean, eta espedientean dauden txostenak ikusita, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau erabaki du:

Lazkaoko Udalaren eta EDP CLIENTES, S.A. enpresaren artean gas naturalaren hornidurarako izenpetutako kontratuaren urte beteko bigarren luzapena onartzea.

#### VI.- GIPUZKOAKO EROSKETA ZENTRALAREN BITARTEZ, ARRATOIAK ETA INTSEKTUAK HILTZEKO ZERBITZU KONTRATUAREN 1. LUZAPENA (2022).-

2023ko ekainaren 21eko Alkatetzaren ebazpen bidez, Udal honek "Foru Kontratazio Zentralaren bitartez arratoiak eta intsektuak hiltzeko zerbitzua kontratatzeko esparru akordiotik" eratorritako kontratua (X22012) IRABIA CONTROL DE PLAGAS, S.L. enpresari (IFZ.: B31547888) esleitzea erabaki zuen, esparru akordioa burutzea erabaki zen baldintzetan.

Aipatu kontratua bi urterako izenpetu zen, gehienez urtebeteko 2 luzapen egiteko aukerarekin.

Aurreikusitako mugaeguna iristear dela kontuan izanda, Gobernantza Departamentuak, 2025eko martxoaren 28ko foru agindu bidez, urte beteko lehenengo luzapena baimentzea erabaki du.

Honen aurrean, eta espedientean dauden txostenak ikusita, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau erabaki du:

Lazkaoko Udalaren eta IRABIA CONTROL DE PLAGAS, S.L. enpresaren artean arratoiak eta intsektuak hiltzeko zerbitzurako izenpetutako kontratuaren urte beteko lehen luzapena onartzea.

#### VII.- GIPUZKOAKO EROSKETA ZERNTALAREN BITARTEZ, SALAKETA ANONIMOEN BARNE-KANALA GAITZEKO SISTEMA INFORMATIKOAREN ZERBITZUAREN KONTRATUARI ATXIKITZEA.-

Gipuzkoako Erosketen Foru Zentralak salaketa anonimoen barne-kanala gaitzeko sistema informatikoaren zerbitzua kontratatzeko esparru akordioa Global Factory S.L. enpresarekin sinatu zuen 2024ko abuztuaren 2an.

Kontuan izanda udal honetako Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru kontratazioen zentralari atxikitzeko hitzarmena onartu zuela.

Kontuan izanda baita ere udal honek zerbitzu honen kontratazioa behar duela, eta Idazkariak zerbitzu hau kontratatzeko proposamena luzatuz txostena egin duela.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin zera erabaki du:

- 1.- Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez salaketa anonimoen barne-kanala gaitzeko sistema informatikoaren zerbitzua kontratatzeko Global Factory S.L. enpresarekin sinatua duen esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikipena ematea, 2011ko martxoaren 17ko Udal Osoko Bilkurak onartuta atxikitako hitzarmenean ezarritako eran eta baldintzetan, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako arauetan.
- 2.- BAIMENA EMATEA alkateari udal honi dagokion kontratu eratorria esleitzeko.

#### VIII.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

#### Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 14-11-01 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan baja ematea apirilaren 25etik egoitzan sartzeagatik.
- 25-11-04 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea apirilaren 7an, astean bi egunez eta egunean bi orduz. Onuradunen ekarpena % 100ekoa izango da.
- 25-11-05 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea apirilaren 14an, astean bi egunez eta egunean bi orduz. Onuradunen ekarpena % 100ekoa izango da.
- 25-11-06 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea maiatzaren 9an, astean bi egunez eta egunean bi orduz. Onuradunen ekarpena % 100ekoa izango da.

#### Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 22-01-015 zenbakidun esped.: etxeko mantentze gastuetarako hilean 100 €-ko dirulaguntza ematetik 64 €-ko dirulaguntza ematera pasatzea maiatzetik abendura. Eman daitekeenaren % 64 da.
- 25-01-006 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 150 €-ko dirulaguntza ematea maiatzetik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.

#### Gizakia Helburura joateko garraiorako dirulaguntzak.-

- 25-14-01 zenbakidun esped.: apirilean garraiorako 300 €-ko dirulaguntza ematea, Gizakia Helburura egiten dituen garraio gastuak ordaintzeko.
- 25-14-02 zenbakidun esped.: martxoan garraiorako 300 €-ko dirulaguntza ematea, Gizakia Helburura egiten dituen garraio gastuak ordaintzeko.

#### IX.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

#### San Benito ikastetxeko ikasleei.-

San Benito ikastetxeko 1. Batxilergoko ikasleei, Lazkaoko jaietan antolaketa lanean laguntza emateagatik 510 €-ko dirulaguntza ematea.

#### Antzar konpartsari.-

2025eko urtarrilaren 13ko Tokiko Gobernu Batzordean, Antzar konpartsari Lazkaoko jaietan erraldoi eta buruhandien bilkura antolatzeagatik 5.000 €-ko dirulaguntza ematea onartu zen. Lehen 3.000 €-ko zatia momentu horretan ordaintzea onartu zen.

Orain izan dituzten gastuen egiaztagiriak aurkeztu dituzte eta 4.850,49 €-koak izan direla ikusirik, gainontzeko zatia, hau da, 1.850,49 € ordaintzea onartu da.

Ordainketa aurrekontuaren 1 480.03.338.00 partidatik egingo da.

#### Oin Arin dantza taldeari.-

2025eko San Prudentzio jaietan, maiatzaren 1ean, XLIII. dantza suelto txapelketa antolatzeagatik 1.752,95 €-ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa aurrekontuaren 1 481.01.334.00 partidatik egingo da.

#### Lazkaoko Musika Bandari.-

2025eko San Prudentzio jaietan Lazkaoko Bandaren kontzertua antolatzeagatik 1.500 €-ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa aurrekontuaren 1 481.07.334.00 partidatik egingo da.

#### Lartxai elkarteari.-

2025eko San Prudentzio jaietan bakailao lehiaketako bazkaria prestatzeagatik 825,69 €-ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa aurrekontuaren 1 481.16.334.00 partidatik egingo da.

### X.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

#### Euskarako eskoletara joateagatik dirulaguntza deialdia 2025-2026 ikasturterako.

Norgehiagoka-erregimenean euskarako eskoletara joateagatik dirulaguntzen 2025-2026 ikasturterako deialdia aurkeztu da bere onarpenerako.

Deialdiaren testuak honela dio:

"EUSKARAKO ESKOLETARA JOATEAGATIK  
DIRULAGUNTZA DEIALDIA 2025-2026 IKASTURTERAKO.

*1. artikulua. Xedea.*

Laguntza hauen deialdi honen xedea da 2025-2026 ikasturtean euskarako eskoletara joateagatik laguntza ematea.

## *2. artikulua. Partida eta aurrekontuko diru-hornidura.*

Deialdi honetan emango diren diru-laguntzen zenbatekoa guztira 7.000 eurokoa izango da, eta hori 2025. urterako Lazkaoko Udalaren Aurrekontu Orokorren honako partidatik egingo da:

1.480.01.335.00 zbki.dun partida, «Euskara: euskara ikast.Dirulag.» .

## *3. artikulua. Ezargarri den araudia.*

Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa; Diru laguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa; Lazkaoko Udalak diru laguntzak emateko ordenantza orokor arautzailea, udal osoko bilkurak 2017ko otsailaren 28an onartutakoa; eta euskarako eskoletara joateagatik eta gida baimena euskaraz ateratzeagatik laguntzak emateari buruzko berriazko oinarriak, Tokiko Gobernu Batzordeak 2022ko maiatzaren 23an onartutakoak.

## *4. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak eta eskaerak aukezteko epea.*

### *4.1. Dokumentazioa:*

- a) Diru laguntza-eskabide normalizatua, beteta eta sinatuta.
- b) NAN dokumentuaren fotokopia.
- c) Banku-erakunde baten egiaztagiria, eskatzailea kontu baten titularra dela adierazten duena.
- d) Ikastaroaren matrikulazio orria.
- e) Egindako gastua justifikatzen duen faktura orijinalak.
- f) Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak.
- g) Desenplegu-egoeran dagoela edo ikasten ari dela egiaztatzen duen ziurtagiria, eta nomina edo pentsio gisa jasotzen duen dirua lanean ari den ala ez adierazten duen ziurtagiria.

### *4.2. Eskariak aurkezteko epea:*

2025eko irailaren 1etik, 2026ko uztailaren 31 arte.

Eskabideak ikastaroa egiten hasterakoan aurkeztuko dira.”

Hau honela, gaia bozketan jarri da eta Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, 2025-2026 ikasturterako euskara eskoletara joateagatik dirulaguntzen deialdia onartzea erabaki du.

#### XI.- EKONOMIA SUSTAPEN ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ekonomia Sustapen Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

##### Merkataritza eta zerbitzu sektorea suspertzeko bonuen kanpainak arautzeko oinarriak.-

Ekonomia Sustapen batzordeak, merkataritza eta zerbitzu sektorea suspertzeko bonuen kanpainak arautzeko oinarrietan aldaketa bat egitea proposatu du. Hain zuzen ere 5.1 artikulua c atalean, hau zioen tokian:

*"Herritar bakoitzak, gehienez, bonu kopuru bat erosi ahal izango du, eta kanpaina bakoitzean zehaztuko da kopurua. Bonuak zenbakituta egongo dira eta eroslearen NAN zenbakia jasoko da salmenta unean.*

*Pertsona batek beste baten izenean bonuak erosi ahal izango ditu honen NANA aurkezten badu, gehienez ere hiru pertsonaren ordezkari tzan."*

Honako hau esatea:

*"Herritar bakoitzak, gehienez, bonu kopuru bat erosi ahal izango du, eta kanpaina bakoitzean zehaztuko da kopurua. Bonuak zenbakituta egongo dira eta eroslearen NAN zenbakia jasoko da salmenta unean.*

*Pertsona batek beste baten izen eta ordezkarietan bonuak erosi ahal izango ditu honen NANA aurkezten badu, dagokion deialdian hala adierazten bada eta bertan zehazten den moduan."*

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) beste gehikuntza bat egiteko proposamena luzatu du, 5.2 artikuluko c puntuan hain zuzen ere.

Egindako proposamen hau aztertu eta baloratzeko eta momentu honetan oinarri hauek ez onartzeko erabakia hartu du Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez.

##### Merkataritza eta zerbitzu sektorea suspertzeko erosketa bonuen 2025eko udaberriko kanpaina.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2025eko udaberriko plangintzaren barnean erosketa bonuen kanpaina antolatzeko proposamena egin du Jarduera Ekonomikoko batzordeak.

Proposamenari erantsitako kanpainaren deialdiak honakoa dio:

## **“LAZKAOKO MERKATARITZA ETA ZERBITZU SEKTOREA SUSPERTZEKO EROSKETA BONUEN 2025eko UDABERRIKO KANPAINA**

### *1. artikulua. Xedea.*

Erosketa bonuen kanpaina honek diru-laguntza izaera du eta egungo merkataritza ohituraren aldaketa dela eta, Lazkaoko merkataritza eta zerbitzuetako jarduera berreskuratzeko, erosketak herrian bertan egitea sustatuko duen eta herriko familien ekonomia lagunduko duen bonu sistema sortzea du helburu.

Kanpaina honek bonuak jarriko ditu zirkulazioan, herriko establezimenduetan gastatzeko, eta herriko eta inguruko biztanleei aukera emango die bonuak eskuratzeko.

Hauek dira programaren helburuak:

- Herriko establezimenduetan salerosketak piztea, herriko ekonomia bultzatu eta bertako kontsumoa indartu eta sustatzeko.
- Lazkaoko familien ekonomia laguntzea.
- Orokorrean herrian merkataritza bultzatzea.

### *2. artikulua. Partida eta aurrekontuko diru-hornidura.*

Kanpaina honetan emango diren diru-laguntzen zenbatekoa guztira 20.000 eurokoa izango da, eta hori 2024. urterako Lazkaoko Udalaren Aurrekontu Orokorren honako partidatik egingo da:

1.471.02.433.01 zbki.dun partida, «Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak sustatzeko» .

### *3. artikulua. Ezargarri den araudia.*

Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa; Diru laguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa; Lazkaoko Udalak diru laguntzak emateko ordenantza orokor arautzailea, udal osoko bilkurak 2017ko otsailaren 28an onartutakoa; eta Lazkaon merkataritza eta ostalaritza sustatzeko laguntzak emateari buruzko berariazko oinarriak, Tokiko Gobernu Batzordeak 2023ko irailaren 25ean onartutakoak.

### *4. artikulua. Bonuen kopurua eta balioa*

Lazkaoko Udalak 2.000 bonu jarriko ditu salgai 2024ko udaberriko kanpaina honetan.

Bonu bakoitzak 30 euroko prezioa izango du eta aldiz 40 euroko balioa, hau da, 40 euroko erosketa ahalmena emango du.

Bonuak erosteko unean bertan ordaindu beharko dira eta ordainketa sistema banku-txartela izango da.

### *5. artikulua. Programaren funtzionamendurako ezaugarriak*

- a) Bonuak 5 euroko 8 txarteletan frakzionatuta banatuko dira, eta frakzio edo txartel bakoitza zatiezina izango da: erosketa bakoitzean gutxienez horietako frakzio oso bat erabili beharko da.

Erosketaren zenbatekoa bonuaren zenbatekoa baina txikiagoa bada diferentzia ez da eskudirutan itzuliko. Hortaz bonu frakzio bakoitza erosketa edota kontsumizio bakoitzean osorik agortu beharko da.

- b) Frakzio edo txartel hauetatik 3 edozein saltokitan erabili ahal izango dira, eta beste 5 txartelak janari dendetan izan ezik, gainontzeko guztietan.

- c) Bonuak ezin dira dirutan trukatu eta ez da inolaz ere eskudirurik itzuliko.

- d) Herritar bakoitzak 3 bonu erosi ahal izango ditu gehienez. Bonuak zenbakituta egongo dira eta eroslearen NAN zbkia. jasoko da salmenta unean.

Pertsona batek beste baten izenean bonuak erosi ahal izango ditu honen NANA aurkezten badu, gehienez ere hiru pertsonen ordezkartzan.

- e) Herritarrek programan parte hartu ahal izateko ez da beharrezkoa izango Lazkaon erroldatuta egotea.

#### *6. artikulua. Bonuen salmenta*

Bonuen salmenta udaletxean egingo da, bertako harrera ordutegian. Astelehen goizetan eta ostiral arratsaldetan salmenta plazan egin ahal izango da.

#### *7. artikulua. Kanpainaren iraupena*

Kanpaina 2025eko maiatzaren 29an hasiko da eta ekainaren 20an amaituko da.”

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, merkataritzaren susta-penerako 2025eko udaberriko bonoen kanpainaren deialdi hau onartzea erabaki du.

### XII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) Meandroko ibilbidearen obraren kontratazioaren inguruan galdetu du, ea nola doan gaia.

Alkateak erantzun dio oraindik obraren kostuaren balorazio berriaren zain daudela eta momentu ez dela ezer egin.

### XIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta berrogeita bost direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.